

ELKARLANEKO DIAGNOSTIKOA. ANTSOAINGO PLAN ESTRATEGIKOA 2024- 2030.



0. Irakurketa gida

Antsoaino 2024-2030 Plan Estrategikoaren Elkarlaneko Diagnostikoak udalerraren etorkizunerako ibilbide-orri bat ezartzea du helburu, herritarren parte-hartzearen, iraunkortasunaren eta ekitatearen ikuspegitik. Dokumentu honek Antsoaino indarguneak, ahuleziak, aukerak eta erronkak jasotzen ditu funtsezko zortzi eremu hauetan: genero-berdintasuna, kultura, kirola, euskara, hiri-konfigurazioa, ekitatea eta zaintza, gizarte-berrikuntza komunitarioa eta ingurumen-jasangarritasuna. Gaiak lantzen dira prozesuan parte hartzen duten pertsonen ikuspegitik eta datu objektiboen azterketatik.

1. Sarrera eta helburuak

Diagnostiko-prozesu hau 2030 Agendaren eta Garapen Jasangarriko Helburuen (GJH) barruan kokatua dago, eta plangintza parte-hartzailea eta inklusiboa sustatzen du. AMIA metodologia erabili zen udalerraren beharrak eta potentzialtasunak aztertzeko, eta herritarrek, talde teknikoek, politikoez eta sozialek parte hartu zuten.

2. Testuinguruaren azterketa orokorra

Antsoain Iruñerrian dago, eta 10.608 biztanle ditu (2023). Biztanleriaren dentsitate handia eta Iruñerriarekin eta Eskualdearekin duen harremana ditu ezaugarri. Historikoki, landa-gune txiki izatetik hiri trinko eta nagusiki bizitegi-hiri izatera igaro da. Erronka demografiko nagusien artean biztanleriaren zahartzea eta jaiotza-tasaren murrizketa daude.

3. Diagnostikoa Gaikako Ardatzen arabera

3.1. Genero-berdintasuna

Aukerak:

- Erakundeen aldetik konpromiso sendoa dago, planak eta ordenantzak onartzean erakusten denez.
- Genero-indarkeriaren aurkako programak eta berdintasunerako zerbitzu bat.

Erronkak:

- Soldata- eta enplegu-arrakalak emakumeen eta gizonen artean.
- Emakume ordezkari gutxi lidergo-espazioetan.
- Udal Berdintasun Plan baten beharra.

3.2. Kultura

Aukerak:

- Herritarren parte-hartze handia kultur jardueretan.
- Kultur esparru eta zerbitzu tekniko konprometituen sarea.

Erronkak:

- Kultur estrategia koherente baten gabezia.
- Espazioak sakabanatuta daude eta ez dago Kultur Etxerik.
- Irisgarritasun unibertsala bermatzeko erronkak.

3.3. Kirola

Aukerak:

- Kirol instalazioen eta kirol jardueren eskaintza zabala.
- Instalazioen erabilera handia, herritarren interesaren isla.

Erronkak:

- Funtsezko instalazio batzuk gainezkatuak, hala nola igerilekuak eta kiroldegiak.
- Azpiegiturak berritzeko eta egokitzeko beharra.
- Lehia kostu txikiko eskaintza pribatuekin.

3.4. Euskara

Aukerak:

- Euskara dakiten pertsonen kopuruak nabarmen egin du gora, batez ere gazteen artean.
- Erakundeen eta hezkuntzaren bultzada handia.

Erronkak:

- Belaunaldien arteko aldea hizkuntzaren erabileran.
- Euskararen integrazio mugatua eguneroko jardueretan.
- Ikasteko zailtasun handiagoa etorkinen artean.

3.5. Hiri-konfigurazioa

Aukerak:

- Hurbileko zerbitzuak dituen udalerrri trinkoa.
- Ezkaba mendirako sarbidea eta berdeguneak.

Erronkak:

- Hiri-hazkunde mugatua, espaziorik ez dagoelako.
- Mugikortasun iraunkorra hobetzea.

3.6. Ekitatea eta zaintza

Aukerak:

- Programa aitzindariak, hala nola "Antsoain, Zaintzen duen Herria".
- Adinekoentzako eta pertsona zaurgarrientzako jardura inklusiboak.

Erronkak:

- Gero eta zerbitzu gehiago eskatzen dira biztanleria zahartzen ari delako.
- Garraio publikoaren eskasia zenbait gunetan.
- Lana eta familia uztartzeko erronkak.

3.7. Berrikuntza sozial komunitarioa

Aukerak:

- Harrobi Gazte Etxea eta Aurrekontu Parte-hartzaileak bezalako proiektuak.
- Gardentasuna udal-kudeaketan.

Erronkak:

- Elkarre-ehunaren jardura txikia.
- Gobernantza-eredu inklusiboak finkatzeko beharra.

3.8. Ingurumen-jasangarritasuna

Aukerak:

- Berdeguneen ugarritasuna eta biztanle bakoitzeko batez bestekoaren gainera dagoen espazio-ratioa.
- Azken urteetan CO² emisioak murriztea.

Erronkak:

- Klima-aldaketarekiko gero eta zaurgarritasun handiagoa.
- Hiriko azpiegiturak egokitzeko beharra

4. Ondorio eta Gomendioak

Diagnostikoak argi erakusten du Antsoainek oinarri instituzional eta parte-hartzaile sendoa duela bere erronka eta aukerei aurre egiteko. Hala ere, funtsezkoa da lan-estrategia argiak eta koordinatuak zabaltzea gaikako ardatz guztietan. Iradokizun esanguratsu batzuk dira, besteak beste, honako hauek:

- Udal Berdintasun Plangintza bat eta Kultur Plangintza bat osatzea.
- Kultura eta kirol azpiegituren jasangarritasuna sustatzea.
- Euskararen erabilera bultzatzea adin eta ingurune guztietan.
- Etxebizitzarako aukera eskaini lezaketen aukera eta konponbide berriak ikasi.
- Mugikortasun jasangarria eta klima-aldaketari egokitzea lehenetsi.
- Gizarteratzea eta zahartze aktiboa lehenetsi.

Ikuspegi horretatik, Antsoainek aurrera egin dezake etorkizun ekitatiboago, jasangarriago batera, komunitatearen beharrekin konektatua.

Bukatzeko, azterketa honen ikuspegi osatuago eta sakonago bat izateko, gomendatzen dizuegu Elkarlaneko Diagnostiko osoa irakur dezazuen.